BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3468

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 7koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez deitutako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena (Unibertsitate-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko 2014-2015 deialdia egiten du aginduak (2013ko abenduaren 9ko EHAA, 233. zenbakia).

Deialdi-aginduaren 12.1 artikuluaren arabera, ebaluazio-batzordeak proposamena aurkeztuko dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, eta sailburuordeak laguntzak esleitu edo ukatuko ditu ebazpen bakar eta arrazoitu baten bidez; interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpena. Eta honako hauek argitaratuko dira EHAAn –guztiek horren berri izan dezaten–: erakunde onuradunen zerrenda, esleitutako urtez urteko zenbatekoa eta finantziazioa jaso duen programaren titulua.

2014ko ekainaren 24an ebatzi zen deialdia, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak garatzeko emandako laguntzen onuradunen zerrenda eta esleitutako zenbatekoak –honekin batera doan eranskinean jasotakoak– argitaratzea, Unibertsitate-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko 2014-2015 deialdia egiten duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko abenduaren 3ko Aginduaren babesean (2013ko abenduaren 9ko EHAA, 233. zenbakia).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 7a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZERRENDA

							DEIALDIA			ENTREPRESAK		GUZTIRA
KODEA	IKERTZAILE NAGUSIA	ENTITATE ONURADUNA	ENTITATE LAGUNTZAILE	ENTREPRE-SAK	PROIEKTUAREN IZENBURUA	IRAU PENA	2014. URTEA	2015. URTEA	GUZTIRA	2014. URTEA	2015. URTEA	GUZTIRA
UE2014-8	Barrena Bruña, Jon Andoni	M U Goi Eskola Politeknikoa Soc. Coop.	Ikerlan Soc. Coop.	Orona, Soc. Coop	Raciona: análisis para la racionalización de los flujos de energía en el transporte vertical.	2	35.131	22.874	58.005	4.000	4.000	66.005
UE2014-9	Poza Lobo, Francisco Javier	M U Goi Eskola Politeknikoa Soc. Coop.		CAF Power & Automation	Control sensorless de motores de imanes permanentes para aplicaciones ferroviarias (pmsless-utf)	2	33.500	29.352	62.852	8.000	8.000	78.852
UE2014-12	Sagarduy Mendieta, Goiuria	M U Goi Eskola Politeknikoa Soc. Coop.		Orona, Soc. Coop	Aure-reingeniería automatizada de modelos de automatismos embebidos	2	12.275	13.775	26.050	2.000	2.000	30.050
UE2014-14	Arana Arexolaleiba, Nestor	M U Goi Eskola Politeknikoa Soc. Coop.		Ekide SL	Panoramix: sistema para reconstrucción tridimensional de superficies mixtas (reflectantes y/o mates) para aplicaciones industriales y médicas	2	23.996	12.675	36.671	4.523	4.523	45.717
					GUZTIRA		**104.902**	**78.676**	**183.578**	**18.523**	**18.523**	**220.624**